




Fagor Electronica 1965etik garatzen eta fabrikatzen ari den erdieroaleak osagai diskretuen familiakoak dira.

Zer gertatzen ari da munduan erdieroaleekin?


Fagor Electronicak urteak daramatza hainbat sektoretarako erdieroaleak egiten, eta labur-labur azalduko dizugu, lerro hauetan, zer gertatzen ari den

Erdieroaleen mundua oso zabala da, eta, bakoitzak betetzen dituen funtzioen arabera, familian banatzen dira. Hauek dira **familia garrantzitsuenak**: memoriak, mikroprozesadoreak, optoelektronika eta, azkenik, osagai diskretuen familia.


Osagai diskretu horiek egiten duten lana da zirkuitu elektroniko batetik zirkulatzen duen seinale elektrikoa zuzentzea, ahultzea eta mugatzea, seinalea zirkuituko mikroprozesadore/mikrotxipera iristen denean baldintza egokietan egon dadin eta **mikroprozesadoreak (garunak)** erabaki egokiak hartu eta edozein aplikaziotarako (ibilgailua, etxetresna elektrikoa, ordenagailua, zerbitzaria, etab.) seinale/ekintza egokiak igorri ahal ditzan.




Memoriak





Mikroprozesadoreak



Optoelektronika



Osagai Diskretuak




Gaur egun, **mikroprozesadoreen hornidurarik ez dagoenez** (erdieroaleen mundu zabalean familia garrantzitsuenetako bat dira mikroprozesadoreak) krisia gertatzen ari da munduan, sektore askotan —eta ez soilik automobilgintzan— fabrikazio lerroak gelditzen ari direlako.

Zer fabrikatzen du Fagor Electronicak?




Fagor Electronican besteak beste Diodoak, Supresoreak eta Tiristoreak fabrikatzen ditugu, eta horiek **Diskretuen familian** kokatzen dira, erdieroaleen mundu zabalaren barruan. Gure mundua elektronizatzeke dagoen behar handiari esker, gure produktuen erabilera oso hedatua dago hainbat sektoretan, hala nola **automobilgintzan, etxetresna elektrikoetan, ordenagailuetan, telefono mugikorretan eta IoT-n (Internet of Things)**, esaterako.



Adibide gisa, munduan saldutako **4 ibilgailuetatik batek** edo mundu mailan saldutako **10 egosketa plaketatik batek** Fagor Electronicaren osagaiak ere daramatza.

Produktu horietan guztietan Fagor Electronicaren osagaia ez da begi hutsez ikusten.

4 ibilgailuetatik 1




10 egosketa plaketatik 1

Non daude Fabrikatzaileak?




Europa osoa hartuta, **Frantzia, Italian, Holandan, Espainian eta Alemanian** badira erdieroaleen fabrikatzaile batzuk, baina horietako inork ez du egiten azken belaunaldiko mikroprozesadorerik.

Azken belaunaldiko mikroprozesadoreen fabrikatzaile nagusiak **Korean, Taiwanen eta Txinan daude.**



Erdieroaleak

Frantzia, Italia, Holanda, Espainia eta Alemania



Mikroprozesadoreak


Taiwan, Korea eta Txina

Fagor Electronica
da **erdieroaleen
(osagai diskretuen)
fabrikatzaile bakarra**
Espainia osoan.



Asiako hego-ekialdea funtsezkoa da

Asian fabrikatzen diren mikroprozesadoreekiko mendekotasuna erabatekoa da; izan ere, duela **20-25 urte inguru, elektronikaren industriak** erabaki zuen erdieroale gehien fabrikazioa, mikroprozesadoreak barne, Asiako hego-ekialdera eramatea.



Gaur egun, azken belaunaldiko mikroprozesadoreen planta produktibo berri bat eraikitzeko inbertsioa **14 mila milioi US\$** ingurukoa da.



▼
Ekoizteko ahalmenaren jait-siera, arrazoi hauengatik:



**Lehortea
Taiwanen.**

Erdieroaleak egiteko, ur kantitate izugarriak behar dira.



**Mozketak
hornidura
elektrikoan.**

▲
Eskariaren gorakadaren arrazoiak:



Ordenagailuen, telefono mugikorren, tableten eta horrelako gailuen kontsumo handiagoa, **pandemiaren ondorioz.**



Telefono mugikorrak **5G teknologiar**a egokitzeko beharra.



**Ibilgailu
elektrikoaren** sarrera handiagoa

“**Gehiegizko eskaeraren fasean**” sartu gara, eta horrek guztiak eskaria kolapsatzea ekarri du, eskaintzarekiko.

Kalkulatzen da egoera **2022ko bigarren seihilekorako** normalizatu ahal izango dela

Denbora horretan, sektore askotan fabrikazioak eta balizko hazkundeak mugatuta egongo dira, mikroprozesadoreak eskuragarri egoteak baldintzatuta egongo baitira. Oso malguak izan beharko gara eta egokitzapen asko eta lan handia egin beharko dugu, bai eta hornitzaileekiko hurbil egon ere.

